

ERRAMUN MARTIKORENA

Erramun Martikorena 1943ko otsailaren 1ean sortu zen, Baigorriin, Oxobia edo Otsobi etxean. Erramun Martikorenak 78 urte ditu.

Ttikia zelarik euskal kantuak entzuten zituen. Hiru anai-arrebetan gazteena zen, eta Urdozeko auzoko eskolan ikasi zuen 14 urte bete arte. Ameriketara egondako bere aitak kantatzen zituen kantuak entzun eta ikasi zituen. Eskolan frantsesez jakin gabe hasi zen, eta han irakasle bat ohartu zen kantatzeko dohain berezia zuela. Hori dela eta, maiz kantarazi zioten ikaskideen aitzinean. Gaztetan armadan ere abestu zuen .

Erraman Martikorena nekazaria eta artzaina da.

Musika kontutan dena berak bakarrik ikasi zuen. 1969. urtean Lartzabalen egin zen kantu txapelketa irabazi zuen. Hala ere, ez zuen baliatu nahi izan lehiaketa hori irabazteak kantagintzan aritzeko eman zion aukera.

Bere kantu ospetsuak hauek dira: Xoriei mintzo zen, Kantuz sortu naiz, Irrintzia eta Baigorri.



Kanta: Xorieri mintzo zen.

<https://www.youtube.com/watch?v=YRXmWm-sCz>

Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri,
Oihaneko zuhaitzeri, ta zeruko izarrerri;
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten;
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.
Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan,
Zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.
Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri,
Oihaneko zuhaitzeri, ta zeruko izarrerri;
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten;
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.
Haurrek zuten harrikatzen, zahar gaztek trufatzen;
Etxekoek berek ongi laneko baliatzen,
Laneko baliatzen eta gosez pagatzen.
Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri,
Oihaneko zuhaitzeri, ta zeruko izarrerri;
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten;
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.
Hil da xorua bakarrik, bakarrik da ehortzi.
Etzen han kristau bat ere, salbu lau hilketari,
Salbu lau hilketari ta apeza kantari.
Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri,
Oihaneko zuhaitzeri, ta zeruko izarrerri;
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten;
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.
Hil hobian ezartzean, haizea zen gelditu,
Xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu,
Zerua zen goibeldu ta jendea orroitu.

Egileak: Aimar Lizasoain eta Uxue Mindeguia